



LANAREN KONFEDERAKUNDE
NAGUSIA

28 D'ABRIL

LANEAN SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

BIZITZEKO LAN EGIN

EDO LAN EGITEKO BIZI?



OLLY
KX110

KOEFIZIENTE ERREDUZITZAILEEN
gaineko EDa betetzearen alde!

BIZITZEKO LAN EGIN EDO LAN EGITEKO BIZI?

Apirilaren 28an Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. **CGT-LKNT**ik aurten, gobernuak erretiroa hartzeko gutxieneko adinaren gaineko koefiziente erreduzitzailei buruzko Errege Dekretua berehala indarrean jar dezala aldarrikatzera zuzendu nahi izan dugu.

Errege Dekretu honetan, izaera bereziki latza, toxikoa, ez osasungarria edo arriskutsua, eta gaixotze edo hilkortasun tasa altuak dituzten jardueretako edo lan taldeetako eskaletan, mailetan, kategorietan edo espezialitateetan murriztu daitekeen jubilatzeko adin bat ezarri daitekela esaten da.

ED hau 2011 urtekoa da, Zapateroren gobernuak onartu zuen eta ordutik ez da ezer egin. Milaka lagunei erretiroa hartzeko adina goizago eta eskubide guztiakin hartzea ahalbideratuko zien araudi hau betetzeko ez Rajoy-k ez Sanchez-ek ez dute zirkinik ere egin. Talde bakar batek bere eskakizunak beteta ikustea deigarria da: tokiko poliziak.

Amiantoa bezela osasunerako kaltegarriak diren sustantzien eraginpean lan egiten duten eta ondorioz bizitza laburtuko zaien pertsonak legezko adinarekin erretiroa hartzea, edo burdinaren zein altzairuaren fabrikazioan, sektore petrokimikoan, basoetako suteak itzaltzen, garraio publikoak gidatzen, lan mekaniko eta errepetitiboak egiten, eta beste hainbat lan nekagarrietan eta arriskutsuetan aritzen direnak beranduago jubilatzera behartuak izatea ez da bidezkoa.

EDak langileek haien jubilatzeko adinean koefiziente erreduzitzaileak aplikatzeko bete beharreko baldintzak, prozeduraren hasiera, tramitazioa eta hoiengatik aplikazioa nortzuk eskatu dezakete jasotzen du. Ikerketa burutzeaz eta eskaerak tramitatzeaz zein Administrazio eta Erakunde arduratu behar diren ere zehazten du. Ez betetzeaz gain, dagoeneko martxan zeuden hainbat txostenen ikerketak geldiarazi dituzte, eta beste asko ez dira onartuak arautegian agertzen ez diren eskakizunak inposatzearen ondorioz.

CGT-LKNTik egungo gobernuari, berehala, aurkeztutako txosten guztiak tramitatzea eta Gizarte Segurantzari koefiziente erreduzitzaileak aplikatzeko beharrezko ikerketak egin ahal izateko baliabide ekonomiko eta pertsonal nahikoa ematea eskatzen diogu; eta hoiengatik Diputatuen Kongresura igortzea, ikerketetatik eratorritako jubilatzeko adinaren murrizketak aurrera eramanez ahal izateko arautegia onartu dezan. Eta hurrengo Estatuaren Aurrekontu Orokorrean gertatuko diren jubilazioei aurre egiteko beharrezko funtsak sartu behar dira.

CGT-LKNTik hura betetzea exijituko dugu, bide judizialek zein kalean, lan egiteko bizi ordez bizitzeko lan egin nahi dugula bezalako oinarrizko gauza bat aldarrikatuz.

KOEFIZIENTE ERREDUZITZAILEEN gaineko EDa betetzearen alde